

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**81/2009 (EE) Erregelamendua Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena**

**2009ko urtarrilaren 14koa,**

**Schengengo Mugen Kodearen baitako Bisatuen Informazio Sistemari dagokionez, 562/2006 (EE) Erregelamendua aldatzen duena**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratata aztertu dute eta, bereziki, haren 62. artikularen 2. paragrafoa a) idatz-zatia,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuko 251. artikulua [1] araututako prozedurarekin bat,

Honako alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko martxoaren 15ean emandako 562/2006/EE Erregelamendua, pertsonen mugak igarotzeko arauen Erkidegoko kodea (Schengengo Mugen Kodea) [2] ezartzen duenak, mugetako kontrolak eta zaintza arautzen dituzten baldintzak, irizpideak eta arauak xedatzen ditu, baita Schengengo Informazio Sistemaren bitartez egiten diren egiaztapenentarako baldintzak, irizpideak eta arauak ere.

(2) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2008ko uztailaren 9an emandako 767/2008/EE Erregelamendua, Bisatuen Informazio Zerbitzuari (VIS) eta epe laburreko bisei dagozkien datuak estatu kideen artean trukatzeari (VIS Erregelamendua) [3] buruzkoak, helburu hau du: bisatuen politika orokorraren aplikazioa hobetzea. Horrez gain, bertan xedatutakoaren arabera, VISaren helburuak dira kanpoaldeko mugetako kontrolak erraztea eta iruzurrei aurre egitea.

(3) 767/2008/EE Erregelamendua bilaketak egiteko irizpideak eta baldintzak ezartzen dizkie agintari eskudunei, agintari horiek aukera izan dezaten kanpoaldeko mugetan kontrolak egiteko, bisatuen jabeen identitateari buruzko datuak eskuratzeko, bisatuen benetakotasuna eta herrialdera sartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatu ahal izateko, eta estatu kideetako lurretan sartzeko, bertan egoteko edo bertan bizitzeko baldintzak betetzen ez dituzten edo betetzeari utzi dioten pertsonak identifikatzeko datuak lortzeko.

(4) Schengen esparruan sartu nahi duen pertsona, bisatudun pertsona bera dela egiaztatzeko, hartz-marka bat baino behar ez denez, bidezkoa da kanpo-mugetan VISaren erabilera aurreikustea.

(5) Hirugarren herrialdeetako pertsonen sarrerak kontrolatzeko baldintzak betetzeko, 562/2006/EE Erregelamenduko 5. artikuluan zehazten direnak, eta beren eginkizunak modu egokian gauzatzeko, mugazainek eskura duten informazio guztia erabili behar dute, baita VISean kontsulta ditzaketen datuak ere.

(6) Pertsonak VISa erabiltzen duten mugak saihesten saia ez daitezten eta sistemaren erabateko eraginkortasuna bermatzeko, kanpo-mugetako sarreren kontrolaz ari garenean, oso garrantzitsua da VISa modu bateratuan erabiltzea.

(7) Bisatuak behin baino gehiagotan eskatzen dituzten kasuan VISean egindako lehen eskaerako datu biometrikoak berrerabili eta kopiatzea egokia denez, sistema hori kanpo-mugetako sarrera-kontrolan erabiltzeak derrigorrezkoa izan behar du.

(8) VISa erabiltzeak bisatuaren etiketaren zenbakia eta hatz-marken egiaztapena konbinatzen dituen bilaketa sistematikoa egitea esan nahi du. Hala ere, bilaketa horrek mugetan igaro beharreko denboran eragina izan dezakeenez, salbuespen kasuetan, epe jakin batean zehar eta egoera zehatzetan, VISa hatz-markak sistematikoki egiaztatu gabe erabili daiteke. Estatu kideek arduratu behar dute, salbuespen hori aplikatzeko xedatutako baldintza guztiak betetzen direla zaintzeaz eta salbuespen horren iraupena eta maiztasuna, baldintza horiek betetzen dituzten mugetan beharrezkoa dena baino luzeagoa ez izateaz.

(9) Beraz, egokia da 562/2006/EE Erregelamenduaren aldaketak hori kontuan hartuz egitea.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(10) Kontuan hartuta estatu kideek ezin dutela askitasunez lortu erregelamendu honen helburua, hau da, kanpomugetan VISA erabiltzeko arauak ezartzea, eta, beraz, helburu hori hobekiago lor daitekeela erkidego-mailan, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatuko 5. artikuluan jasotako subsidiariotasun-printzipioari jarraituz. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, helburu horiek lortzeko neurriak hartzera mugatzen da erabaki hau.

(11) Erregelamendu honek oinarrizko eskubideak errespetatzen ditu eta Europar Batasuneko Tratatuko 6. artikuluko 2. paragrafoko printzipioak betetzen ditu, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen Europako Hitzarmenean eta Nazio Batuen Oinarrizko Eskubideen Gutunean biltzen direnak.

(12) Islandiari eta Norvegiari dagokienez, Erregelamendu honek Schengengo altxorraren xedapenak garatzen ditu, Europar Batasuneko Kontseiluak Islandiako errepublikarekin eta Norvegiako erreinuarekin bi herrialde horiek Schengengo altxorra egikaritzeko, aplikatzeko eta garatzeko [4] sortutako elkartari buruz sinatutako Akordioan biltzen direnak. Xedapen horiek, Akordio hori aplikatzeko arau zehatzei buruzko 1999ko maiatzaren 17ko Kontseiluaren 1999/437/EE Erabakiaren 1. artikuluko A paragrafoan bilduta daude [5].

(13) Suitzari dagokionez, Erregelamendu honek Schengengo altxorraren xedapenak garatzen ditu, Suitzako Konfederazioak Schengengo altxorra egikaritzeko, aplikatzeko eta garatzeko [6], Europar Batasunak, Europako Erkidegoak eta Suitzako Konfederazioak sinatutako Akordioan biltzen direnak. Xedapen horiek Kontseiluaren 2008/146/EE Erabakiaren [7] 3. artikulua araberan interpretatutako 1999/437/EE Erabakiaren 1. artikuluko A paragrafoan bilduta daude.

(14) Liechtensteini dagokionez, Erregelamendu honek Europar Batasunak, Europako Erkidegoak, Suitzako Konfederazioak eta Liechtensteingo printzerriak sinatutako protokoloaren xedapenak garatzen ditu. Protokolo horretan Liechtensteingo printzerriak bat egiten du Europar Batasunak, Europako Erkidegoak eta Suitzako konfederazioak Suitzako Konfederazioak Schengengo altxorra egikaritzeko, aplikatzeko eta garatzeko [8] hartutako erabakiarekin. Xedapen horiek Kontseiluaren 2008/261/EE Erabakiaren [9] 3. artikulua araberan interpretatutako 1999/437/EE Erabakiaren 1. artikuluko A paragrafoan bilduta daude.

(15) Danimarkaren jarrera dela eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuari erantsitako Protokoloko 1. eta 2. artikuluei jarraiki, Danimarkak ez du parte hartzen erregelamendu hau erabakitzeko orduan, eta, gainera, erregelamenduak ez du lotzen, eta ezin zaio aplikatu. Erregelamendu honek, EBko Tratatua VI. tituluko hirugarren zatian ezarritakoari jarraituz, Schengengo altxorra garatzen duela kontuan izanda, Danimarkak, aipatutako Protokoloaren 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Erregelamendua indarrean jartzen den unetik sei hilabeteko epea izango du bere barne-zuzenbidean garatuko duen ala ez erabakitzeko.

(16) Erregelamendu honek Schengengo altxorreko xedapenak garatzen ditu, baina Kontseiluak 2000ko maiatzaren 29an emandako 2000/365/EE Erabakiak, Britainia Handiko Erresuma Batuak eta Ipar Irlandak Schengengo altxorreko zenbait xedapenetan parte hartzeko egindako eskaerari buruzkoak [10], arautzen duenari jarraituz, Erresuma Batuak ez du xedapen horietan parte hartzen. Hori dela eta, Erresuma Batuak ez du parte hartzen Erregelamendu hau erabakitzeko orduan, eta, gainera, erregelamenduak ez du hura lotzen, eta ezin zaio aplikatu.

(17) Erregelamendu honetan Schengengo altxorreko xedapenak garatzen dira, baina Kontseiluak 2000ko maiatzaren 29an emandako 2000/365/EE Erabakiak, Irlandak Schengengo altxorreko zenbait xedapenetan parte hartzeko egindako eskaerari buruzkoak [11] arautzen duenari jarraituz, herrialde horrek ez du xedapen horietan parte hartzen. Hori dela eta, Irlandak ez du parte hartzen Erregelamendu hau erabakitzeko orduan, eta, gainera, erregelamenduak ez du hura lotzen, eta ezin zaio aplikatu.

(18) Zipreri dagokionez, Erregelamendu honek Schengengo altxorraren xedapenak garatzen ditu, eta 2003ko atxikitze Aktaren 3. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoari jarraituz, altxorrekiko duen harremana zehazten du.

(19) Erregelamendu honek Schengengo altxorra garatzen du, edo 2005ko atxikitze Aktaren 4. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoari jarraituz, beste mota bateko harreman bat du altxorrekiko.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:

1. artikulua

Aldaketa

81/2009 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 35, 2009/02/04koa)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Horrela aldatu da 562/2006/EE Erregelamenduko 7. artikuluko 3. paragrafoa:

1) a) idatz-zatiaren ondoren, idatz-zati hauek jarri dira:

"a bis) hirugarren herrialde bateko pertsona bat 5. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz-zatian aipatzen den bisatuaren titularra bada, herrialdera sartzerakoan egingo zaion ikuskapen sakonean, bisatuaren titularraren identitatea eta bisatuaren benetakotasuna egiaztatuko dira, eta, horretarako, kontsulta egingo da Bisatuen Informazio Sistemari (VIS); hori egin behar dela xedatzen baitu Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2008ko uztailaren 9an emandako 767/2008/EE Erregelamenduak, Bisatuen Informazio Sistemari (VIS) eta epe laburreko bisatuen informazioa estatu kideen artean trukatzeari buruzkoak (VIS Erregelamendua) [];

a ter) salbuespen gisara:

i) trafikoaren dentsitatearen ondorioz, mugan itxaron beharreko denbora gehiegizkoa bada,

ii) pertsonalari, instalazioei eta antolamenduari dagokionez, baliabide guztiak amaitzen badira, eta

iii) ebaluazio batek barne-segurtasunaren eta legez kanpoko immigrazioarekin zerikusia duen arazorik ez dagoela adierazten badu,

VIS sistema kontsultatzean, kasu guztietan erabiliko da bisatuaren etiketako zenbakia baina, bisatuko etiketako zenbakia zenbait kasutan soilik konbinatuko da hatz-marken egiaztapenarekin.

Hala ere, bisatuaren titularraren identitateari edo bisatuaren benetakotasunari buruzko zalantzarik izanez gero, VISa kontsultatzerakoan bisatuaren etiketako zenbakia eta hatz-markak egiaztatuko dira sistematikoki.

Salbuespen hori lehen aipatutako baldintzak betetzen dituzten mugetan soilik aplikatu ahal izango da.

a quarter) VISa a ter) idatz-zatian xedatutakoari jarraiki kontsultatzeko erabakia, dagokion mugako mugazainen arduradunak edo haren gainetik dagoen norbaitek hartuko du.

Erabaki hori hartu duen estatu kideak berehala emango die horren berri gainerako estatu kideei eta Batzordeari;

a quinquies) urtean behin estatu kide bakoitzak a ter) idatz-zatiaren aplikazioari buruzko txosten bat igorriko die Europako Parlamentuari eta Batzordeari. Txosten horretan bildu beharko ditu bisatuaren etiketako zenbakia soilik erabiliz VISaren bitartez kontrolatutako hirugarren herrialdeetako pertsonen kopurua, eta a ter) idatz-zatiko i) tartekian adierazten den itzarote-denbora zenbatekoa den;

a sexies) a ter) eta a quarter) idatz-zatiak gehienez ere hiru urtetan zehar aplikatuko dira VISa funtzionatzen hasi eta handik hiru urtera. a ter) eta a quarter) idatz-zatien aplikazioko bigarren urtea amaitu baino lehen, Batzordeak aplikazio horri dagokion ebaluazioa helaraziko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Ebaluazio hori oinarritzat hartuta, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak Erregelamendu honentzako zuzenketa-proposamenak egiteko eska diezaioke Batzordeari;

2) c) idatz-zatiko i) tartekian esaldi hau gehituko da:

"Egiaztapen horren baitan VISa kontsulta daiteke 767/2008/EE Erregelamenduko 18. artikuluan xedatutakoari jarraiki,".

3) Ondoko idatz-zatia gehituko da:

"d) Estatu kideetako lurretan sartzeko, egoteko edo bizitzeko baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak edo baldintza horiek betetzeari utzi diotenak identifikatzeko, VISa kontsultatu ahal izango da 767/2008/EE Erregelamenduko 20. artikuluari jarraituz".

2. artikulua

Indarrean jartzea

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeita egunera jarriko da indarrean Erregelamendu hau.

81/2009 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 35, 2009/02/04koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

767/2008/EE Erregelamenduko 48. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako datatik hogeit hamar egun igarotzen direnean aplikatuko da.

Erregelamendu hau bete beharrekoa izango da bere elementu guztietan, eta zuzenean aplikagarria estatu kide bakoitzean, Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuen arabera.

Estrasburgon emana, 2009ko urtarrilaren 14an.

Europako Parlamentuaren izenean,

presidentea

H.-G. Pöttering

Kontseiluaren izenean,

presidentea

A. Vondra

[1] Europako Parlamentuaren txostena, 2008ko irailaren 2koa (oraindik Aldizkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko azaroaren 27koa.

[2] L 105 EO, 2006.4.13koa, 1. or.

[3] L 218 EO, 2008.8.13koa, 60. or.

[4] L 176 EO, 1999.7.10ekoa, 36. or.

[5] L 176 EO, 1999.7.10ekoa, 31. or.

[6] L 53 EO, 2008.2.27koa, 52. or.

[7] L 53 EO, 2008.2.27koa, 1. or.

[8] Kontseiluaren 16462/06 dokumentua; <http://register.consilium.europa.eu> helbidean eskuragarri dagoena.

[9] L 83 EO, 2008.3.26koa, 3. or.

[10] L 131 EO, 2000.6.1ekoa, 43. or.

[11] L 64 EO, 2002.3.7koa, 20. or.

[ ] L 218 EO, 2008.8.13koa, 60. or.